



LIBURUA

Alez ale



UBERAN.ORG



BIDEKO HITZA. EUSKAL POEMA MODERNOEN ANTOLOGIA (1951-2019) JUANJO OLASAGARRE

ALAI, 2020

IGOR ESTANKONA

Hasiera batean irudi luke ur handitan sartu dela Juanjo Olasagarre antologoa *Bideko hitza. Euskal poema modernoaren antologia* (1951-2019) honekin (Alai, 2020). Hitzaurrean berak argitzen du asmoa, ostera: “Galde diezaigun geure buruari itaun potolo hau: Zer da poesia? Milaka dira definizioak, baina definizio horren ertz batekin denok egingo genuke bat: asko irakurtzen ez den generoa dugu poesia; eta oraingoz, egotz diezaigun horren errua poesiari berari, alegia, zeinua eta esanahia bata bestetik gero eta gehiago urrunarazi dituen artearen ildo historikoari, zeinak, bestalde, arte guztiei eragin baitie”.

Eta guztiz kontra egon arren hitzaurrean esaten direnekin, pozarren naiz. Asmo okerrekin batzuetan gauza ederrak

dakartzate. Olasagarrek antologia bat ondu du leun-leun eroan nauena azken mende erdi luze honetako pieza ederretan barna, biolentoenetan barna, finenetan barna. Poesia ez baita, guk ere hala sinetsi dugun arren, gutxi irakurtzen den generoa gurean. Poesiak inoiz ez dio utzi zeinuarekin eta esanahiarekin jolasteari. Poesia ez da gizartetik urrundu, poesiarekin gozatu egin dugu, poesia indartsu dago, euskal poesia da Antonio Casado da Rocharen puncha, Castillo Suarezzen zeta, Pako Aristiren yang-a, Luigi Anselmiren harlandua, Beatriz Chiviteren ekialdeko haizea: “Zortzi t’erdiak dira/ biak berandu dabiltza/ alaba azkarragoa da.// Bere esku txikiarekin/ bulzatzen du aita”.

Eta *Bideko hitza* irakurriz otu zait gero eta hobeak gara, gero eta abe-

ratsagoak direla gure erregistroak, eta lehengo existentzialista vs. liriko dikotomiaz harago gure literaturak emariak dituela milaka, hibridazioak, Angel Erroren ironia, Luis Berrizbeitiaren perfekzioa, Joseba Sarrionandiaren duintasuna, Jose Luis Otamendiren elo-kuentzia: “Gu munduarenak gara/ baina mundua ez da gurea/ gu euriarenak gara/ jendearenak gara/ baina mundua ez da gurea”.

Eta harrotasun pentsamenduak erabili ditut antologia hau bukatu ahala, ikusi dudanean ni ere bertan naizela, nire bi poema kuttunekin. Olasagarrek egin du selekzio bat maisu batena. Ederrenak hautatu ditu: bere bihotzean durundu handiena egin dioten azken ia zazpi hamarkadetako uzta oparoaren ale doratuenak. ●